


Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Leningradeko setioa eta Tolstoi

WWW.WIKIWAK.COM



LIFE



WWW.WORDPRESS.COM



LENINGRAD, 1941EKO IRAILAREN 1A. Artilleria naziaren lehen granadek hiria jo zuten. Astebete geroago lehorreko komunikazioa moztu zuten eta hilaren 15erako hiria erabat inguratua, setiatua zegoen. Hitlerrek hiria hartzea erabaki zuen lehenik, gune estrategikoa izateaz gain, garrantzi sinboliko handia zuelako. Baina hiria hartuz gero, alemaniarrek beren gain hartu beharko zuketzen 3.000.000 biztanle hornitzea eta elikatzea. Hitlerrek pentsatu zuen askoz merkeagoa eta eraginkorragoa izango zela Leningradeko herritarrak goseak eta hotzak hiltzea.

Urte bereko azaroaren 20an, sobietarrek Ladoga ibai zeharkatzen zuten pasabidea eraikitzea lortu zuten, hirian elikagaiak eta bestelako beharrezko materiala sartu ahal izateko. Biziaren Bidea esan zioten pasabideari, baina ibaiaren izotz geruza hauskorren eta alemaniarren erasoen menpe zegoenez, irtenbidea ez zen nahi bezain eraginkorra izan.

Hiriko usoak jan zituzten lehenik, ondoren katuak desagertu ziren Leningradeko kaleetatik

Ezkerretik eskuinera: Lev Tolstoi idazlea; Leningradeko emakumeak tanke nazien kontrako tranpak prestatzen; eta Iosif Stalin buruzagi sobietarra. Stalinekin Tolstoiaren Gerra eta bakea lanaren 100.000 ale bidali zituen Leningradera, alemaniarrek hiria setiatu zutenean.

eta arratoi populazioak ere nabarmen egin zuen behera. Azkenean, antropofagiara jo behar izan zuten. Eta hala ere, hiriko biztanleek ohiko kaloria kopuruaren %10 baino ez zuten hartu setioaren lehenengo urtean. Lehen negu hura, gainera, bereziki gogorra izan zen eta hotzak milaka batzuk eraman zituen.

Stalinekin (1878-1953), Bizitzaren Bidetik sartzten ziren jakiak eta erregaiak nahikoak ez zirela jakitun, setiatuen arima elikatzea erabaki zuten: Lev Tolstoiaren (1828-1910) *Gerra eta bakea* lanaren 100.000 ale inprimatu eta Ladoga ibaiaren beste ertzera eramateko agindu zuten. Liburuak ezin ziren jan, eta su emanda ere ez zuten bero handirik ekarriko. Baina Tolstoiaren hitzek herriaren gerrarekin bat egiteko konpromisoa hartzen zuten gizakiak gorapatzen zituen.

Setioak ia 900 egun iraun zuten. Ofizialki 700.000 pertsona hil ziren, milioi eta erdi zenbait iturrirer araberak. Eta azkenean Leningradeko eutsi egin zion, literaturak horretan izan zuen garrantzia neurtu ezin daitekeen arren.

Arrastoak

Mahomari buruz, baina Mahoma agertu gabe

ALMOOR HOLDINGS Qatarreko talde mediatikoak 2011n Mahomari buruzko filma errodutzen hasiko direla jakinarazi du. Ekoizlea Barrie Osborne ezaguna izango da, *Lord of the Rings* trilogian produkzio lanetan aritutako bera. Osbornen esanetan, ingelesez errodaturako duten lan honen helburua "kulturak batzea"

da. Mahoma profeta (irudian) gutxitan irudikatua izaten da, musulmantzat iraingarria baita. Filmeko arduradunek ohitura hori errespetatzea erabaki dute, hau da, Mahoma bera ezingo dugu ikusi pantailan. Ez Almoorreko arduradunek ez ekoizleak, ez dute argitu oztopo hori nola gaindituko duten.



WWW.WORDPRESS.COM